

Piparraren jai jendetsua

'Ibarra, azoka eta piparra' azoka izan zen herenegun ▶ 7



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2006-09-26 ▶ IV. urtea ▶ 971. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

UNAI OTAÑO ▶ EUSKAL HERRIKO AIZKORAKO BIGARREN MAILAKO TXAPELDUNA

«Ez nuen espero hain urte borobila egingo nuenik»

IBARRA ▶ Bigarren Mailako txapela eskuratu ondoren, Lehen Mailan ariko da datorren denboraldian

SAILKAPENA ▶ Jexux Mari Mujika ibartarrak bosgarren postua lortu zuen Uharteko finalean ▶ 6

TOLOSA ▶

Esteban Nieto omendu dute

Erail zutela zazpi urte beteko dira gaur eta herenegun izan zuten gogoan ▶ 3

Yazmai Reza egilearen 'Arte' antzezlanaren lehen aldiz euskaraz, Leidorren

TOLOSA ▶ Txalo konpainiaren eskutik, ostiral honetan ikusi ahal izango da ▶ 2

LEITZA ▶

Oinatz Bengoetxea San Mateo Torneoan txapeldun

Patxi Ruiz bikote zuela, Xala eta Pascualen aurka gailendu ziren ▶ 7

TOLOSA ▶

Porrotarekin ekin dio Hegoalde denboraldi berriari

1-2ko emaitzarekin galdu zuen Tolosako taldeak, Usabalen, Adae-koen aurka ▶ 3



BIDEGOIAN ▶

Kultur Asteko lehendabiziko eguna, «oso arrakastatsua»

Giro bikaina izan zen, herenegun ▶ 5

ANOETA ▶

Zerbitzuen eskaintza zabaldu du Abraham Olano kiroldegiak

Atzo ireki zituen ateak erabiltzaileentzat; batik bat, ikastaroen informazioa jasotzeko hurbildu da jendea ▶ 4

KULTURA ▶

'Arte' obra lehen aldiz euskaraz, Leidorren

Txalo konpainiaren eskutik, estreinako izusi ahal izango da Yazmai Rezaren antzezlanak, ostiral honetan, Tolosan

ESTI EZEIZA

Ostiralean estreinatuko da Leidorren, Yazmai Rezaren *Arte* antzezlanak. Txalo konpainiak aurkeztuko du azken 10 urteetako «mundu mailako lan arrakastatsuenetakoa» hau. Euskal Antzoki sarean ere ikusmin handia sortu du, eta, dagoeneko, 50 emanaldi lotu dituzte. Hala, azken entseguetan harropatu zituen atzo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

Karlos Zabalak zuzenduta, Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Asier Ormaza aktoreak dira antzezlanaren protagonistak. Bestalde, Xabier Agirrek burutu du ekoizpen lana; honek azaldu zuenez, duela hiru urte ikusi zuten antzezlanak Txalokok, eta asko gustatu zitzaizkien. Horregatik, eskubideak lortzen saiatu ziren, baina lehenengoan ezin izan zituzten lortu, «euskara gutxiengoen hizkuntza baita». Azkenik, bigarren saiatuntza batean, Yazmai Reza idazlearekin kontaktuan jarrita, euskaratzeko eskubideak lortu zuten.

Aktoreen esanetan, «antzezlanaren mamia, testuan bertan dago, idatzita dagoen moduagatik eta esaten duenagatik». Istorioren abiapuntua artearekin lotuta dago. Honen inguruko eztabaida zabaldu egiten da, eta betiko hiru lagunen arteko harreman pertsonaletan ere eragiten duela.

Julia Marin izan da testua euskaratu duena, zuzendariaren laguntza bezala aritu delarik. Hala, zuzendariak, berak egindako lan handia azpimarratu nahi izan zuen, «komedia landu bat baita, hizkuntza ja-



Arte antzezlaneko partaideak, atzo, aurkezpenean. E. EZEIZA

soa erabiltzen duena, eta hau ulergarria egitea oso zaila zen».

Xabier Agirrek, era berean, «obra hau aktore lan izugarria da, eta horregatik, apropos aukeratu nituen hiru antzezle hauek», aipatu zuen. Antzezlaneko parte-hartzaile guztiak bat etorri ziren esatean, «erromka» handia dela lan hau taularatzeko, «testua oso ona baita». Baina gaineratzen zuten, aldi berean, bermea ere badela hori, gainontzeko tokietan arrakasta handia izan baitu. Horregatik, gidoiari garrantzia ematearren, atrezzo ahalik eta minimalistena egiten saiatu dira, apaingarriak kenduaz. Bestalde, testua arintzen saiatu dira, horren adibide, gaztelaniazko bertsioa baino 25 minutu laburragoa izango dela euskarazkoa. Denera, ordu bat eta

hogei minutu irauten du antzerkiak.

Izen handiko lana

Obra hau hainbat hizkuntzera itzulia eta 30 herrialdetan aurkeztua izan da. Gainera sari ugari irabazi ditu, besteak beste, 1995. urtean, Parisen, urteko obra hoberenaren saria irabazi zuen, 96an berriz, Londresekoa, eta 97an, New Yorkeko.

Txuriz dagoen margolan bat egoera sozial desberdineko hiru lagunen arteko eztabaidagai bihurtuko da eta hauek arte garaikideari buruz arituko dira. Horrek guztiak laguntasunari, maila ertainari eta gaur egungo gizarteari buruzko hausnarketa batean amaituko du, jendea, tolerantzagoa eta adeitsuagoa izan behar dela erakutsiz.

GUTUN@K ▶

Esteban gogoan

Gaur betetzen dira 7 urte dispartsioko politikaren ondorioz Esteban erail zutenetik. Politika honek, jada, eraman dizkigu 22 euskal preso politiko eta 16 senitarteko eta lagun.

Berritoki ere gobernuan dagoenetik, PSOEK gogortze bat bultzatu du espetxe politikari honetan. Aznar bera ere gaitur du, bai eskubide urraketetan, bai legeen erabilera, prozedura berriak asmatu baititu euskal preso politikoak espetxeetan mantentzeko. Kasu argiena, Iñaki de Juarena daukagu, Estebanen lagun mina. Gaur, hogeitun urte espetxean egon eta gero, orain dela bi kalez egon behar luke zigor osoa beteta, eta barrurik defendatu behar du, beste biderik ez baitiote uzten, bere askatasun eskubidea, gaur bertan, bere 51. gose greba egunean aurkitzen delarik. Lehengo asteazkenean, bere 45. gose greba eguna bete zuenean, bere borondatearen aurka, elikatua izan da, horrekin bere agonia eta bere ahaideen sufrikarioa luzatu eta areagotu besterik egiten ez delarik.

Ez da kasu bakarra Iñakirena, azken 30 urteetan espetxe politika ezberdinak pairatu ditu Euskal Preso Politikoen kolektiboak, zein baino zein krudelagoak. Eta hauen guztien komuneko helburua askapen borroka baldintzatzea izan da, komuneko ezaugarria eskubide guztien urraketa zutelarik. Baina porrot egin duen espetxe politika errepresibo horiek haratago eramaten dituzte gobernuak gaur egun, eta bizi arteko espetxealdia ezarri dute indarrean. Zuzendibidea jipoiatuz, legeari muzin eginez, iruzurrez eta azpizokoz baliatuz, euskal presoaren espetxealdia luzatzen dute.

Gatazka politikoa ez da konponduko presoei aplikatzen dieten espetxe politikaren ondorioz, ez eta preso politikoen kaleratzearen ondorioz ere, baizik eta Euskal Herriaren

eskubideak errespetatzearen ondorioz. Prozesuak aurrera egingo badu, espetxe politika ere konponbide demokratikoren klabeak jarri behar dute. Horrek esan nahi du, euskal preso politikoak Euskal Herriari batua izan behar dutela, estatus politiko osoaren, hau da, beren eskubide guztien jabe.

Prozesu demokratikoak Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubide guztiak errespetatzera eta aplikatzera garamatzen heinean, euskal preso politiko guztiak, gure herrira, etxera, lagun eta senideen artera itzuli behar dute. Izan ere, kolektibo urrats berritoki eta erakargarriagoak emateko prest omen dago, gure herriaren askapen bidean aurrera egiteko, abian den prozesu politikoak euskal demokrazia esparrua ireki dezan behin betiko. Horrela, Euskal Herriaren ukazioan oinarritzen den prozesu politiko guztien kontra ausartzen jarraituko dute. Presoek bat eginda, eta lehengo astean kolektibok plazaratutako komunikatua esaten zen bezala, deialdia egiten diogu Euskal Herriko emakume eta gizon guztiei preso bideak indartzeko, aplikatzen zaien espetxe politikaren aurka, oraindik ere gatazka klabeak erroturik dagoen espetxe politika horren erantzuleen kontra eta euskal presoaren eskubide guztien alde, hau da, bere estatus politikoen alde. Halaber, amnistia osoaren alde.

Deialdi biziagoa, hala ere, egiten diogu euskaldun guztiei Euskal Herriaren aitortzearen alde, gure herriaren eskubideen alde, lurraldetasuna eta autodeterminazioaren alde lan eta borroka egin dezaten/dezagun.

Lasai Esteban, hire lana eta borroka ez hituan alferrikakoak izan, eta goizago ala beranduago lortuko dizkiagu fruituak.

MIKEL ZABALA, TOLOSASKO AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN IZENEAN ▶ TOLOSA

iragarki laburrak ▶



San Francisco etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: enria@inmoenria.com
www.inmoenria.com

Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.
Leaburu bidean. 600 m2 dituen pabiloia alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500 m2ko zelaiarekin.
Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.
Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. Bista oso onak.
Amezketak, Gabiria, Hernialde, Ibarra, Villabona eta Zizurkil.

Hainbat etxe bifamiliarrak, adosatu eta eraikitako partzelak.
Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.
Berokuntzarekin.
Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.
Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak salgai. Hiru eta lau logela dituzte.

Terrazekin. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.
Tolosa. Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.
Tolosa. Alde Zaharra, 2 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza. 168.285 euro.
Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Igogailu proiektua onartuta.
Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza.
Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza.

92 eta 97 m2. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berrikutak.
Estreinatzeko. Garajeekin.
Tolosa. La Estrella. Oso egoera onean. Igogailu eta garajeekin.
Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, 4 logela. Igogailua. Garajea. Egoera ona.
Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berriari pisu altua. 100 m2. Garaje itxiarekin.
Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrantzat egokia.

ARETO FUTBOLA ▶

Porrotarekin ekin dio denboraldiko lehen partidari Hegoalde

1 eta 2 galdu zuen Valladolideko Adae taldearen aurka; «epaileen lan txarra» azpimarratu dute Hegoaldekoek



Hegoalde taldeko jokariak entrenamendu batean. ESTI EZEIZA

INIGO TERRADILLOS

Larunbatean ekin zioten Hegoaldeko neskek denboraldi berriari Usabal kiroldegian. Lehen partidari, Valladolideko (Espainia) Adae talde izan zuten arerio, eta «partida parekatua» izan bazen ere, etxeko taldeak 1 eta 2ko emaitzarekin galdu zuen.

Lehen zatian ez zen golik igo markagailura, baina hori bai aukerak izan ziren porteri batean zein bestean. Bigarrenen iritsi ziren, beraz, hiru golak. Lehendabizikoa Adae taldekoek egin zuten. «Espero gabe etorri zen gol hori, ezustean harrapatu gintuen», azaldu dio HITZARI Dani Garciak Hegoaldeko entrenatzaileak. Segituan iritsiko zen, ordea, tolosarren eskutik berdinketaren gola. Bigarren zatiko 11. minutuan

HELGOALDE ▶ 1
ADAE ▶ 2

Jokariak. Tamara; Maider; Edurne; Ana Barciano; Amaia.

Aldaketak. Itziar (ordezko atezaina); Sara; Emi; Ane; Isa.

Golak. 0-1: Adae (bigarren zatiko 10. minutuan); 1-1: Maiderrek (bigarren zatiko 11. minutuan). 1-2: Adae (bigarren zatiko 12. minutuan).

Maiderrek kornurretik zuzenean «sekulako gola» sartu zuen. Eta hirugarren gola ere berehala etorri zen; Adaeok area-aren kanpoaldetik gogor jaurti zuten baloia, eta Sarak ukitu ondoren, sare barruan sartu

zen. 1-2koa zen, eta emaitza hori ez zen aldatu partidaren amaieran. «Bukatzeaz zegoenean alda zitekeen, penalti argia egin baitziguten, eta epailek ez zuten ikusi; orohar epaileen lana txarra izan zen», dio Garciak. «Dena den, bestela ere, aukera ugari izan genituen golak egiteko eta ez genuen asmatu, eta horiek ezin dira barkatu». Garciak harmailetan animatzen zeuden zaleak ere eskertzen ditu, «laguntza handia ematen baitute».

Taldeak lan asko egiteko duela azaltzen du entrenatzaile berriak; «jokalari gazteak dira, eta pixkanaka egin behar dugu aurrera; gainera bajak ere baditugu». Hurrengo partidari dagokionez, Zaragozan (Espainia) jokatuko du Hegoaldeko Maife taldearen aurka, igandean, 13:00etan.

POLITIKA ▶



Esteban Nieto omendu dute, erail zuteneko urteurrenean

E. Ezeiza ▶ Zazpi urte beteko dira gaur, Esteban Nieto erail zutenetik. Hori dela eta, herenegun omenaldia egin zioten Larraitx inguruko zelaietan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende ugari bildu zen eguerdian Tolosako Administrazioaren aldeko mugimenduak deitutako lore eskaintzara. Irudian, dantza saioaren una bat; albokaren doinuak ere entzun ahal izan ziren. HITZA

KIROLAK ▶

Jokatu dituzte Tolosa Kup-eko lehen partidak

Abenduaren 16ra arte Tolosaldeko 39 talde ariko dira astebururo, nor baino nor

I. TERRADILLOS

Larunbatean jokatu zituzten Tolosa Kupeko lehen partidak. Anayet Ibarra eta I Strawberryren arteko partida izan zen lehendabizikoa, eta I Strawberry irabazi zuen 0 eta 2; The Patxis Makalak taldeari gailendu zitzaion 10 eta 1 eko emaitzarekin; Uzturre Klub-ek 4 eta 2 irabazi zion Oargi ttipi tpa taldeari; Da-

non Txokoak 4 eta 1 irabazi zuen Como pollo sin cabezaren aurka; Txoko txiki Zaleak taldearen aurka galdu zuen 0 eta 4.

Bestalde, hauek izan ziren igandeko emaitzak: Itaiek 2 eta 1 irabazi zuen Rayo Vaticanoren aurka; Papa movilek 5 eta 2 egin zuen No somos nadiereen aurka, eta Bikutz eta Plaza Cristalesen artekoak 0 eta 0 bukatu zuen.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. IV. HITZA Argazki Lehiaketako 8 finalisten argazkiak gure webgunean daude ikusgai, *irudietan* atalean. Eman botoa zure argazki favoritoari eta HITZAKO materialaren zozketan hartu ahalko duzu parte.

iragarki laburrak ▶
LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurlaritzan, Udalekueetan eta Erakunde Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943 31 37 82.

iragarki laburrak ▶
LANA

Dekorazio denda. Pertsona bat behar da dekorazio denda batean lan egiteko. Lan esperientzia eta ikasketak baloratuko dira. Bidali curriculum-a argazkiarekin alo222c@hotmail.com helbide elektronikora.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko,

Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 [telefono zenbakira](tel:635745291).
Ileapaintzailea. Ileapaindegirako langilea behar da, lanordu osorako. Interesatuak deitu 652 76 90 92 [telefono zenbakira](tel:652769092).

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra

salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu 615 75 57 62 [telefono zenbakira](tel:615755762).

BESTEAK

Katakumeak. Katakumeak oparitzen dira, pertsona arduratsuentzat. Interesatuak deitu 943 65 39 55 telefono zenbakira.

ANOETA ▶ KIROLA

IMANOL GARCIA

Abraham Olano kiroldegi berriak hasi du bere ibilbidea. Atzotik irekita ditu ateak erabiltzaileentzat. Batez ere ikastaroei buruzko informazioa nahi zuten atzo kiroldegira joandakoek eta zenbaitek muskulazio gela ere erabili zuten. Anoetako Herri Ikastolakoak izan ziren pista erabili zutenak. Ikastetxeak ez du kirola egiteko leku estalirik eta ezin aproposagoa da haien zati kiroldegia ondoan izatea.

Aurreikusita dauden ikastaroak oraindik ez daude guztiz finkatuta. Hala ere, kiroldegiko kudeatzailea den Onintza Agirrek azaldu duenez, «jendeak zer ikastaro egin nahi dituen jasotzen ari gara eta baita proposamen berriak ere». Datoren asterako ikastaroak, beraien ordutegiak eta prezioak zehaztuta izatea espero dute eta izen-emate epea irekitzea. «Urriaren erdiraldera ikastaroak martxan izatea nahi ditugu», adierazi du Arregik.

Azpiegiturei dagokionez zenbait ukitu falta dira oraindik. Esaterako, erabilera antzeko gela bi zatitan banatzeko asmoa dute, bi ikastaro batera egitea bermatzeko. Oraingoan, gela bakarra bezala dago egokituta.

Ate irekiko jardunaldia

Pozik dago Onintza Arregi larunbateko ate irekiko jardunaldiaren arrakastarekin. «Jende ugari etorri zen, inaurraguzio ekitaldian bezala»,

Kiroldegia hasi da zerbitzuak eskaintzen

Ikastaroen berri jakin nahi izan zuten atzo joandakoek



Herri Ikastolako ikasleek pista erabili zuten atzo soinketa ikasgaiko ariketak egiteko. I. GARCIA

esan du. Egun horretan ekintza asko egin ziren. Goizean Ibarrrako Uzturpe Ikastolakoek eta Anoetako Herri Ikastolakoek partiduak jokatu zituzten elkarrekin. Ondoren, lunch herrikoia egin zuten, partaidetza zabalarekin. Muskulazio gela ere ezagutu ahal zuten herritarrek eta haurrek ez zuten aspertzeko aukerarik izan txokolatadarekin eta puzgarriekin.

ONINTZA ARREGI ▶ ABRAHAM OLANO KIROLDEGIKO KUDEATZAILEA

«Kirol praktika osasunera bideratzeko asmoa dut»

Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatua eta kudeaketan berezitua da Onintza Arregi (Tolosa, 1983) kiroldegi berriaren kudeatzailea.

Zer moduz lehenengo eguna? Lasaia izan da jende kopuruaren aldetik, baina lanik ez da

falta izan. Langile bakarra izanda, lan asko dago pertsona batentzako.

Nolakoa da kiroldegi berria? Anoeta bezalako herri batentzako oso ondo ikusten dut. Aurrerago, jendeak proposatu ahala gauza gehiago jartzeko aukera izan daiteke, jacuzzia, masaje gela...

Zer asmo dituzu kudeatzaile bezala?

Kirola egiteko ohitura sortzea anoetarrengan. Garrantzi handia ematen diot osasunari, hau da, kirol praktika osasu-

DATUAK ▶

ORDUTEGIA

Astegunetan: 10:00-13:00 eta 17:00-21:00. Larunbat, igande eta jaiegunak ibita.

HARPIDETZAK

Haurrak. 0-15 urte.

▶ Urtekoa: 18 euro.
▶ Hiruhilekoa: 6 euro.
▶ Eguneko sarrera: 1,50 euro.

Gazteak. 16-24 urte.

▶ Urtekoa: 30 euro.
▶ Hiruhilekoa: 9 euro.
▶ Eguneko sarrera: 2 euro.

Helduak. 25-64 urte.

▶ Urtekoa: 60 euro.
▶ Hiruhilekoa: 16,50 euro.
▶ Eguneko sarrera: 2,50 euro.

65 urtetik gora/jubilatuak.

▶ Urtekoa: 40 euro.
▶ Hiruhilekoa: 11,50 euro.
▶ Eguneko sarrera: 2,00 euro.

Elbarrituak.

▶ Urtekoa: 30 euro.
▶ Hiruhilekoa: 7,50 euro.
▶ Eguneko sarrera: 1,50 euro.

Langabetuak.

▶ Urtekoa: 25 euro.
▶ Hiruhilekoa: 7 euro.
▶ Eguneko sarrera: 1,50 euro.



I. GARCIA

nera bideratzeari. Hirugarren adinekoak kiroldegira hurbiltzea ere nahiko nuke. Bestalde, hilero ekintzaren bat antolatze-ko asmoa dugu: irteerak, tailerak... Aurrerago, areto futboleroez gain beste kiroleretan talde federatuak sortzea interesgarria litzateke. ◀



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Taberna · Jatetxea
alokatzen da
Alegian
943 65 28 16
629 91 19 36



Erniobera 3 • Tel.: 943 69 33 75
20150 Billabona

Kazetari lanetarako pertsona bat behar du komunikabide batek.

- Egunean 6 ordutarako.
- Leitza ingurukoa izatea hobetsiko da.

Interesatuak deitu lehen bait lehen 661 67 22 17 telefono zenbakira.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

VOITH-GOROSTIDI EREMUKO (ARRAMELEKO) BABES OFIZIALEKO ETA LOKALEKO ETXEBIZITZAK

• Eskaearak aurkezteko azkeneko eguna: 2006ko urriaren 2a (irailako azken eguna larunbata delako).

• Ordua: 13:00.

Lekua: Tolosako Udaletxeko erregistro orokorrean.

BIDEGOIAN ▶ KULTURA

«Oso ondo» joan da Kultur Asteko lehenengo eguna

Jende asko izan da bertan eguna pasatzen: arrakastatsuen, sardina dastaketa

NEREA URBIZU

«Oso ondo, ia ezin hobea» izan ziren Juan Ugarte, Bidegoiango alkatearen hitz argiak, igandeko Kultur Astearen baitako eguna hitz bitan laburbiltzeko. «Giro bikaina eta oso ona izan zen herrian. Oso pozik gaude».

«Jende asko ibili zen» Goiatzko kaleetan zehar, alkatearen esanetan. Goizean azoka izan zen, iaz bezala, eta baita sardina dastaketa, txakolina eta sagardoarekin batera. Sardinak doaneoko baziren ere, bi euro ordaindu zituzten edan nahi zutenek, basoa lortzeko; «250 edalontzi baino gehiago saldu zituzten», esan zuen alkateak. Datu esanguratsua, jendea ez zela bildu ezin esan.

Euri zaparradak ez dira faltatu asteburuan, baina igandekoan eguraldi onak eutsi zion Goiatzen. «Honela, prestatutako ekintza guztiak egin ahal izan dira, arazorik gabe: azoka, erakusketa, sardina dastaketa, argazki zaharren erakusketa eta herrikoek eskulanetan egindakoen erakusketa». Aurtengo berritasunen artean herriko aspaldiko argazkiak izan dira, eta jendearen harrera ere «oso ona izan da: asko gustatu zaio jendeari».

Gaur hitzaldia izango da 14:30ean, balio anitzeko gelan: *Nola kontsumitu garapen iraunkorraren ikuspegitik* gaia jorratuko dute bertan. Hizlaria Eneko Diaz izango da.

Falta direnak

Hurrengoa osteguneko egitaraua izango da: 21:00etan, Haimar Zubeldia eta Iñigo Chaurreau txirindulariak izango dira hizketan, tertulian. Bertan txirindularitzaren egoera az-



Jende asko dastatu zituen plazan prestatutako sardinak. Horren ondotik, sagardo tragoa. NEREA LIZARTZA

tertuko dute, besteak beste. Bidegoiango udaletxeko batzar aretoan egingo dute, eta «denak daude gonbidatuta».

Larunbata izango da azken eguna, eta haurrentzat egitarau berezia prestatu dute. Ekitaldi erakargarriak prestatu dituzte haiei begira: jolas parkea izango da, bai goizez, eta baita arratsaldez ere. Goizean 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, berriz, 15:00etatik 18:00etara.

Arratsaldean, 15:00etatik aurrera, marrazki lehiaketa ere izango da, «iazko arrakastatsua ikusita». Beranduxeago, 18:00etan, hain zuzen, *Erreka Mari* txotxongilo emanaldia izango da Enkarni Genuaren eskutik. Aurtengo Kultur Astearekin amaitzeko txokolatada prestatuko dute denontzat.



Herriko argazki zaharrak izan dira aurtun berrikuntzen artean. N. L.

ALEGIA ▶

Abesbatzetan kantatzen hasteko, aukera zabalik



Txintxarri Txiki abesbatza. HITZA

N. URBIZU

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek hasi dute ikasturtea. Uztailera bitarte entseguak egingo dituzte. Izena eman nahi dutenek abesbatzarekin (626 06 72 93) jarri beharko dute harremanetan.

Txintxarri Abesbatza Kultur elkarteak kantatzea gustuko duten helduak, gazteak eta haurrak animatzen ditu abesbatzan parte hartzera. «Musika eginez gozatu eta beste herrietako abesbatzeekin harremanak egiteko modua da», abesbatzako kideen ustez.

Txintxarri Txiki haur abesbatza hasi da, jada, entsegatzen. Idoloa Iraolak zuzentzen du eta «haurrentzako erakargarria den egitaraua» lantzen dute: zinemako musika, afrikarra, koreografia duten kantak eta abar. Ikasturtean zehar irteerak egitea aurreikusita dute.

Helduen abesbatzak ere hasi ditu entseguak. Asteartean eta ostiraletan egiten ditu, 21:00etan. Garbiñe Orbegozo alegiarrak zuzentzen du korua, eta era guztiak musika lantzen dute: sakroa, harmonizazio modernoa...

hitza
argazki
lehiaketa

eman botoa

BOTOA EMATEKO

- ▶ P. elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Telefonoz: 943 65 56 95

Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

Irabazleak urriak 1, igandeko egunkarian argitaratuko dira

Sari nagusia

2. saria

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZaren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

Asteburua Euskal Herriko landetxe batean

Plaza Etxeberri jatetxean afaria

IBARRA ▶ AIZKORA

Unai Otaño Lehen Mailara

Bigarren Mailako txapela eskuratu du; Jexux Mari Mujika ibartarra, bosgarren



Unai Otaño, igandean, aizkolarien Bigarren Mailako Txapelketan garaile atera ondoren. LANDER FERNANDEZ ARROYAVE / ARGAZKI PRESS

MADDI SOROA

Unai Otaño ibartarrak lortu du Aizkolarien Bigarren Mailako Txapelketako garaipena. Txapela irabazteaz gain, ordea, sari ederra eraman zuen etxera, datorren urtean Lehen Mailan jokatzeko txartela, alegia.

Larunbatean jokatu zen Uhartan —Iruñea—, Toki Alai pilotalekuan Aizkorako Biga-

rren Mailako Txapelketa. Unai Otaño batera, Jexux Mari Mujika ibartarra ere aritu zen eta bosgarren postua eskuratu zuen. Sailkapenari dagokionez, Juanjo Lopezek erdietsi zuen bigarren postua eta, Otañoekin batera, Lehen Mailan jokatzeko txartela lortu zuen. Gainontzean, Etxebeste geratzen hirugarren postuan, Zubia- ga laugarrenean, eta Senosiain

II izan zen seigarren geratu zena.

Bigarren Mailako Txapelketan egin beharrekoek dagokionez, guztira, bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar izan zituen aizkolarari bakoitzak. Txapeldunak, 20 minutu eta berrogei eta hiru segundo behar izan zituen garaipena lortzeko.

Txapelketa hasi aurretik

Unai Otaño bera zen faboritua, eta ez zuen hutsik egin. Oso forma onean dagoela erakutsi zuen Ibarraoak. Gogoratu, Gipuzkoako Bigarren Mailako finala irabazi zuela bai eta Olasagastiri apustua irabazi ziola ere, Lasarekin batera. Beraz, sekulako denboraldia bete du Otaño. Egindako lanaren fruitu gisa, Maila Nagusian izango da aizkolaria.

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Ez nuen espero hain urte borobila egingo nuenik»

Gipuzkoako Txapela lehenik eta Euskal Herriko gero. Bigarren Mailatik, Maila Nagusira. Urte ederra izan du Unai Otaño (Ibarra, 1977). Orain, atsedena hartuko du, urte amaiera arte.

Txapeldun zara. Esperotako txapela izan al da?

Etxean bezala arituz gero, lehenengo bi postuetan sartzeko aukerak nituela uste nuen. Aurreko kanporaketan lehen postuan sailkatu nintzen eta lan ona egitea espero nuen.

Zerk eraman zaitu txapelara? Entrenatzailea aldatu dut aurtengo denboraldian eta baita prestakuntza ere. Korteia egiteko era aldarazi dit eta horrela asko hobetu dut.

Nori eskaintzen diozu garaipena?

Lehenik eta behin, familiakoei, hainbeste lagundu eta animatzeagatik. Baita nire entrenatzaile berriari ere, Nemesio Arregiri.

Orain arte Bigarren Mailan aritu zara, hemendik aurrera lehenengoan ariko zara.

Beste kontu bat da Lehen Maila. Dena aldatzen da. Lan gehiago egin behar da eta horrek denbora gehiago eskatzen du. Aurkariak ere hobea goak dira.

Lehen Mailarako asmorik?

Hamabi aizkolaria izango gara eta bi jaitsi egiten direnez, helburua Lehen Mailari eustea izango da.

Eta erakustaldie begira, zer asmo?

Bigarren Mailako aizkolaria batzuk lehenengokoei baino erakustaldi gehiago egiten dituztenak. Batzuetan aizkoran aritzeko era bilatzen dute antolatzaileek. Ikusi beharko da nola joaten den urtea.

Zer iruditzen zure herrikide Mujikak lorturiko bosgarren postua?

Gorakada handia egin du. Iaz Hirugarren Mailako txapela irabazi zuen eta aurtun Bigarren Mailakoan, lehen urtea izanik finalera iritsi da. Meritu handia du horrek.

Gipuzkoakoan eta Euskal Herrikoan txapela, Olasagastiri apustua irabazi...



IÑIGO TERRADILLOS

Denboraldi hasieran esan izan balidate hau guztia erdietsiko nuela, adarra jotzea zela pentsatuko nukeen, benetan. Ez nuen espero aurtengoan horrelako gorakada izaterik. Egia esan, urte borobila izan da niretzat. ◀

IBARRA ▶

Lasturko egun pasarako txartelak salgai

Hilaren 30ean, larunbata, urteroko egun pasa antolatu du Ibarra Garagardo Festa taldeak, Lasturrera. Besteak beste, Getarin poteoa eta Lasturren bazkaria egingo dituzte. Txartelak Zubiaurre, Sendi Ekintza, Atari, Txumitxa eta Karlatz tabernetan daude salgai, 23 eurotan.

IBARRA ▶

Kurariaren kontzerturako sarrerak salgai

Kuraria taldea Ibarra izango da, hilaren 30ean. Kontzertua Gaztetxean izango da eta urriaren 28an ospatuko den Elkartasun Egunaren egitarauaren barnean antolatutako dago eta Gaztetxean burutuko da. Sarrerak alde zuzen erosi behar dira, 5 euroren truke, Atari eta Denak tabernetan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ GIZARTEA

Pipar eta pipar artean, jai giro paregabea

‘Ibarra, azoka eta piparra’ jendetsua izan zen, eta «kalitate handikoa»

ERREDAKZIOA

«Piparrak, piparrak eta piparrak». Horixe izan zen guztion ahotan, herenegun, Ibarra eginiko *Ibarra, azoka eta piparra* azokan. Herriaren ikur den produktua dastatzeko nahiz erosteko aukera izan zuten, egun guztian zehar, Ibarra guene ezberdinetara gerturatu zirenek. Hauspoa elkarteko antolatzaileen esanetan, gainera, aipatzekoa izan zen «aurkeztutako piparren kalitatea eta bildutako jende kopurua».

Eguneko ekitaldirik garrantzitsuena Ibarra Piparren II Lehiaketa Gastronomikoa izan zen. Bertan 22 lehiakide hartu zuten parte: 11 piparradan eta beste 11 pintxo lehiaketan. Lehenengoan, Donostiako Zubi-

Musu elkarteko Jose Juan Ijurko eta Xabier Mendizabal izan ziren irabazleak. Pintxo lehiaketako lehen saria, berriz, Ondarroara joan zen. Kantabriko elkarteko Pantxo Bedialaurreta eta Kerne Etxeberria izan baitziren pintxo onenaren egileak. Epaile lanetan, sukaldean aditu diren Hilario Arbelaitz —Oiartzungo Zuberoka jatetxekoa—, Aitor Arregi —Getariako Elkano jatetxekoa— eta Matias Gorrotxategi —Tolosako Casa Julian jatetxekoa— aritu ziren.

Piparrarekin batera, begiak eta barrenak gozatzeko parada izan zuten bisitariek, herrian zehar atondutako jakien eta edarien beste postuekin. Mermeladak, pateak, gazta, gozokiak... denetarik izan zen aukera. Halaber, eguerdira arte



Ibaratik Misio Taldeak ere Bombay, Santa Rosa eta Baba, Suyapa berria eta Hal-Halen diharduten proiektuetarako diru biltzeko postua jarri zuten, San Bartolome plazan. NEREA LIZARTZA



Alurr dantza taldearen postuan piparrak izan ziren salgai. N. LIZARTZA

Ibarra baserriaren azienak ikusgai izan ziren, behiak, txekorrak, ahuntzak eta zaldiak, besteak beste.

Arratsalde partean, San Bartolome plazan bildu zen jai giro guztia. Bertan zen, esaterako, Ibaratik Misio Taldea. Taldeko kideek postu zabala ezarri zuten azoka egun honetan eta bertan lortutako dirua Bombay, Santa Rosa eta Baba, Suyapa berri eta Hal-Halen diharduten proiektuetarako bideratu dute. Eta, nola ez, ez zen faltatu Ibarra Piparrak salztzen zituen posturik.

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxeak San Mateo Torneoko txapela jantzi du Patxi Ruiz bikotearekin

14-22 irabazi zuten finalean, herenegun, Xala eta Pascualen aurka

ERREDAKZIOA

Oinatz Bengoetxea leitzarrek San Mateo Torneoko txapela eskuratu du asteburuan, Patxi Ruiz bikotearekin 14-22 gailendu ostean. Hasiera ona izan zuten binafarrek eta Xalaren bi hutse-

giteren ondorioz 1-5eko emaitza igo zen markagailura. Ruiz fin aritu zen atzealdean eta Bengoetxeak ere ondo defendatu zituen bere bikotearen tantoak.

Haatik, Xala eta Pascual bikoteak ez zuen etsi eta 8-9 gerturatu zen markagailuan biko-

te nafarrari. Une horretan, norgehiagoka piztu izanagatik, Bengoetxeak eta Ruizek gogor erantzun zieten aurkariaren erasoel.

Lizarrako Patxi Ruizek eraman du torneoko pelotari onenari saria, txapelketan zehar egin duen joko ona dela eta.



Oinatz Bengoetxea. J. SAIZAR

TOLOSA ▶

‘Vete y vive’ filma, etzi, zine forum saioan

ERREDAKZIOA

Leidor aretoak atek ireki dituela eta, berriro ekingo diote zine forum saioei. Hala, etzi, 21:30etik aurrera Radu Mihailenau zuzendariaren *Vete y vive* filma izango da ikusgai. Filma honek sari ezberdinak jaso ditu.

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Maritxu Gorrotxategi Mendizabal

Atzo hil zen, 69 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Joan zara bai, baina zauden lekuan egonda ere, jakin ezazu, egunerokotasunean, beti, gure bihotzean eramango zaitugula. Eskerrik asko elkar maiztzen erakusteagatik



Senarra: Joxe Mari Ormazabal; seme-alabak: Jon Imanol eta Imakulada Berriozabal, Txema eta Laura Somalo; anai-arrebak: Esteban (†) eta Juanita Aizpeolea, Claudio eta Edurne Uranga, Martzelina Irastorza (†), Felix eta Juli Lopez, Meliton (†) eta Maitere Larrea, Maixabel eta Teodoro Gereñu; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN MARTIN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ S.Barbara 12, 1. esk. Toki-Txoko etxea
oharra ▶ gorputza Goierni beltatokiaren egongo da 12:30 arte

ZEGAMA, 2006ko irailaren 26a

urteurrena ▶

Xabier Kalparsoro Golmaio

‘Txato’

«Mas no importa, dijo Dick Turpin,
huiremos por la claraboya»



Zumaiaiko Ezker Abertzalea

ZUMAIA, 2006ko irailaren 26a



AGENDA ▶

DEIALDIA

Anoeta. Alkartasunak babarrun jatea antolatu du, hilaren 29rako, San Miguel egunerako. Izen-ematea egoitzan bertan, 18:30etik 20:00etara.

Bidegoian. Kultur Astearen baitan, 14:30ean, balio anitzeko gelan *Nola kontsumitu garapen iraunkorraren ikuspegitik* hitzaldia. Hizlaria, Eneko Diaz izango da.

Tolosa. Sanatana Dharma yoga eskolak antolatutako Kontzientzia Globalari buruzko VII. Jardunaldien baitan, *Pranayamaren boterea* erlaxazio eta arnasketa tailerra, 09:30etik 11:30era eta 17:00etatik 19:00etan yoga eskolan. Eta, 20:00etan, Kultur Etxean, Bharat Martinen *Bizitzaren asmoa* hitzaldia.

Tolosa. Haurren katekesirako izen-ematea, Santa Maria parrokian, hilaren 27an eta 28an.
Villabona. Oinkari dantza taldeak gazte nahiz helduentzat euskal dantza ikastaroa antolatu du; urriaren 19an hasiko dira. Izen-ematea harremanak@oinkari.net helbidean edo 660 139 380 zenbakian.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara arte.

Alegia. Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Adin kontua ote?

IBARRA-LEABURU ▶ Ibarako Bizi Nahi jubilatuen elkarteak lau egunez egin dituzte euren jaiak; Leaburu-Txaraman, berriz, igandean izan zuten egun handia



Leaburuko jubilatuek bazkari legea eginaz ospatu zuten haien egun handia. NEREA LIZARTZA

ERREDAKZIOA

Adina, nortasun agiriari dioena baino, norberaren buruko egoera eta jarreraren omen da. Bada, baieztapen hau egia bada, Ibarako eta Leaburu-Txaramako jubilatuek gazteak dira eta sasoiaren daude oraindik. Izan ere, azken egunotan, euren festak antolatu dituzte, gazte hobereenen pare.

Hala, Leaburu-Txaramako jubilatuek herenegun izan zuten euren egun handia. Udalen laguntzarekin, 12:00etako mezarekin ekin zioten egunari. Dantzak ere izan zuen tarterrik eta, nola ez, toka eta mus jokoa ere izan zituzten. Ondoren, sabela ondo betetzeko parada izan zuten eta bertso musika-tuak ere entzun ahal zituzten.

Ibarako Bizi Nahi jubilatuen elkarteak ez ziren atzean geratu eta igandekoarekin itxi zituzten ekitaldiz bateriko euren lau jai egunak. *Ibarra, azoka eta piparra* azokaren ekintzeekin bat eginik, goizean goiz, dianarekin, hasi ziren jai giroan. Bazkaria ere izan zuten Ibarako pilotalekuan eta arratsaldeko suziriak eman zituen amaiztutaz aurtengo jaiak.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Urte askoan Maite! Haizea familia eta Gaura.



URTE ASKOAN
Nahikari Kaminos.
Gaur 2 urte gure neska motzak. Ondo pasa. Etxekoek.



URTE ASKOAN
Manex Bengoa Izagierre.
Dagoeneko 4 urte!
Zorionak morrosko!



URTE ASKOAN
Maialen Otxandorena.
Zorionak! Gaur 3 urte.
Muxu bat familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaleteko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...